

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A1B22 Zoaz Oslora

Maila: A1

Lexikoa: Noiz: Aste Santuan, oporretan

Adierazpide linguistikoak: proposamenak egiteko eta proposamenei erantzuteko esaldiak: *Ba zoazte zuek/ba joan zuek, Ba zatoz hona/Ba etorri zu hona, Ba zoaz etxera/Ba joan zu etxera* (aginduzko formak proposatzeko). *Hara, ze ideia ona, agian arrazoi duzu! Benetan ari zara? Ze ideia txarra!*

Helburua:

Mintzamenean Aurrez aurreko harremanetan proposamenak egitea, erantzutea adostasuna azalduz.

Funtzioa: Solaskidearengan eragitea.

Azken ekintza: Binaka, urrutiko norbait bisitatu bai ala ez erabakitzeko garaian proposamenak egin eta baiezkoa edota ezezkoa emateko arrazoiak emango dituzte. Taldean: atera diren proposamenei eta proposamen horiek izandako erantzunen berri eman behar dute: atera diren proposamenak eta arrazoiak bilduko dituzte. Eta antzeko bidaiarik egin duten komentatuko dute.

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Tokitan bizi da!

Gaiari hasiera emateko, ikasleak kanpoan/atzerrian bizi izan diren edota inguruan kanpoan bizi den inor daukaten komentatuko dute, eskaintzen zaizkien galderei erantzunez. Bakarka erantzun ondoren, ikaskide batekin komentatuko dituzte erantzunak.

1.2 Gelan badago norbait...

Eskaintzen zaien koadroa beteko dute ikasleek, gelakideen informazioa bertan jasoz: Nor joan edo etorri da Euskal Herrira lana, krisia, ikasketak edo beste arrazoi batzuk bultzatuta?

2- IKUSI BITARTEAN




2.1 Oporrak

2.1.1 Bideoaren lehen zatian (lehenengo 33 segundoak) gertatutakoaren gaineko galderari erantzungo diote ikasleek: *Zer gertatzen zaio Josuri oporrekin?*

Erantzuna: Lide ez da etorriko Josu ikustera

2.1.2 Bideoaren bigarren zatia ikusi eta galderari erantzungo diote ikasleek: *Amaiak hasiera-hasieratik konbentzitu du Josu?*

Erantzuna: Ez: pixkanaka konbentzitu du.

2.2 Amaiak Josu konbentzitu nahi du.   

Bideoaren bigarren zatia berriro ikusita, galderi erantzungo diete ikasleek.

Erantzunak:

Zein problema du Josuk Liderekin? Lide ez da inoiz etorri Oslotik Euskal Herrira.

Zein dago lanpetuta? Josu eta Lide

Lide gabe, nola sentitzen da Josu? Haserre, gogorra da bera gabe egotea

Zer uste du Amaiak Josu eta Lideren arteko harremanaz? “Josuk ez du Lide maite”

Erantzunak ikaskide batekin adostu behar dituzte. Nahi badute, bideoa berriro ikus dezakete, azpigituluen laguntzarekin.

3- IKUSI ONDOREN

3.1 Hizkuntzan arreta

Proposamenak egiteko eta proposamenei erantzuteko baliabideak aurkezten zaizkie ikasleei, adibide batzuen bidez.

3.2 Proposamena aurkitzen! Eta erreakzioa.

Eskaintzen zaizkien bi elkarrizketetan proposamena atzeman behar dute ikasleek, baita Josuren erreakzioa zein den ere.

Erantzunak:

1.

JOSU.— Lide Oslon ari da ikasten, irailean joan zen, eta ez da bueltatu. Oso gustura egongo da han.

AMAIA.— Eta? Non dago arazoa?

JOSU.— Ba hitz egin genuen Aste Santuan elkartzeko, baina orain esan dit ezin dela etorri, lan handia daukala.

AMAIA.— **Ba zoaz zu! (proposamena)**

JOSU.— Hara! **Ez da ideia txarra. (Josuren erreakzioa)**

2.

AMAIA.— Josu, Lide ikusi nahi duzu?

JOSU.— Bai, horixe, 6 hilabete elkar ikusi gabe asko da.

AMAIA.— **Ba zoaz, zoaz Oslora! (proposamena)**

JOSU.— **Agian arrazoa daukazu. (Josuren erreakzioa: zalantzati).** Oso gogorra da horrela bizitzea: bera han eta ni hemen...

3.3 Zoaz atzerrira



Egoera emanda, proposamenak egitea eta hauei erantzuteko aldeko eta aurkako arrazoiak eman behar dituzte ikasleek. Adibide bat eskaintzen zaie (koadroan gorritz adierazita dagoena), baina hemen beste hainbat dituzu aukeran, nahi izanez gero, ikasleei eskaintzeko.

Bikoteka jardun eta gero, taldean komentatuko dute zein proposamen bururatu zaizkien, zein izan diren joateko eta ez joateko eman dituzten arrazoiak eta baita inoiz horrelako bidaiarik egin duten ala ez.

<u>Nor</u>	<u>Noiz</u>	<u>joateko edo ez joateko arrazoiak</u>	<u>Proposamena, eta erantzuna</u>
<ul style="list-style-type: none"> > 2 urteko iloba. Helsinki > Laguna, informatikaria. London. > Semea. Erasmus. Sydney. > Arreba, erizaina. Munich. ... 	<ul style="list-style-type: none"> > Aste Santua > Uztaila > Zubia > Asteburua > Uda 	<ul style="list-style-type: none"> > Ez dut ezagutzen oraindik. > Bidaia merkea da. Eta motza. > Triste nago bera gabe. > Aurten baditut oporrak. > Oso gaixo dago. > Ez daukat dirurik joateko. > Oso lanpetuta nago. > Oso urrun dago. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ezagutu nahi duzu iloba txikia? ● Bai, baina Helsinki urrun dago! ○ Zoaz maiatzeko zubian... ● Ez da ideia txarra. ○ ----- ● ----- ○ ----- ● -----

TRANSKRIPZIOA

AMAIA.— Kaixo!

AMAIA.— A zer umorea!

JOSU.- Bale, bale, agur!

JOSU.- Aupa!

AMAIA.— Motel, a zer tonua! Dena ondo?

JOSU.— Bai, zoragarri.

AMAIA.— Orduan, zergatik zaude haserre?

JOSU.— Lide ez dator oporretan.

ETENA

AMAIA.- Zer gertatu da ba?

JOSU.— Bueno, ba Lide Oslon ari da ikasten, irailean joan zen, eta ez da bueltatu. Oso gustura egongo da han.

AMAIA.— Eta? Non dago arazoa?

JOSU.— Ba hitz egin genuen Aste Santuan elkartzeko, baina orain esan dit ezin dela etorri, lan handia daukala.

AMAIA.— Ba zoaz zu!

JOSU.— Hara! Ez da ideia txarra.

AMAIA.— Ezin dut sinetsi, Josu. Ez zaizu bururatu?

JOSU.— Ez. Bueno, baina, nik ere lan handia daukat hemen...

AMAIA.— Josu, Lide ikusi nahi duzu?

JOSU.— Bai, horixe, 6 hilabete elkar ikusi gabe asko da.

AMAIA.— Ba zoaz, zoaz Oslora!

JOSU.— Agian, arrazoa daukazu. Oso gogorra da horrela bizitzea, bera han eta ni hemen...

AMAIA.— Josu, zuk ez duzu Lide maite. Bestela, aspaldi erosiko zenuen hegazkin-txartela Oslora joateko.

JOSU.— Bai, baina... ez badu nahi ni joatea?

AMAIA.— Ez zara serio ari, ezta?

JOSU.— Ez, neska, nola ba!

AMAIA.— Josu, zure neska-laguna bada, poztuko da. Eta bestela... hobe duzue bakoitza bere aldetik joatea.

JOSU.— Arrazoi duzu, joan egingo naiz!

AMAIA.— Posible ote da?

JOSU.— Zer, zer esan duzu, Amaia?

AMAIA.— Ezer ez. Eta ni banoa, nire mutil-lagun ezkutuari bisita egitera. Gero arte! Aio!